

laburrean

■ Euskaraz idatzitako 67 ipuin eta 10 antzerki lan aurkeztu dituzte Donostia Hiria literatur sarira

GUZTIRA 77 idazlan aurkeztu dituzte euskaraz Donostia Hiria literatur sariaren aurteko ekitaldira, 67 ipuinen sailean eta 10 antzerkikoan, Kutxa Fundazioak atzo zabaldutako ohar batean adierazi zuenez. Sariak bihar zortzi banatuko dira Donostian; ipuin saileko irabazleak 700.000 pezeta (28.000 libera inguru) patrikaratuko ditu eta antzerkikoak, berriz, 1,2 milioi pezeta. Gáztelerazko alorrean, berriz, 1.508 idazlan aurkeztu dira lehiaketara. X

■ Txema Garcia Viana urnietarrak irabazi du V. Antonio Maria Labaien ipuin lehiaketa

TXEMA GARCIA VIANA idazle urnietarrak eskuratu du Tolosako Udaletxeak antolatutako Antonio Maria Labaien literatur sariaren bosgarren ekitaldia, *Triangelu hautsia* izenburuko lanari esker. Guztira 13 idazlan aurkeztu dira lehiaketara, iaz baino hamar gehiago, eta epai-lanetan Felipe Juaristi, Juan Kruz Igerabide eta Karlos Lina-zasoro aritu dira. Sari banaketa eta liburuaren aurkezpenean, ohi bezala, Ostegun Gizen bezperan izango da Tolosan bertan. X

■ 'Cosas que dejó en La Habana' filma aurkeztu du Gutierrez Aragonek Bilbon

KUBAKO etorkin talde baten bizipenak Madrilen kontatzen ditu Manuel Gutierrez Aragon zuzendari espainiarrak bere azken filman. *Cosas que dejó en La Habana* lana aurkezteko Bilbora hurbildu zen zuzendaria atzo, Jorge Perugorria aktore kubatarra eta Kiti Manver madrildarra lagun zituela. Gutierrez Aragonek adierazi zuenez, «filmaren alde aipagarriena egia kontatzen duela da, egia hori dago eta kamerak harrapatu egin du». Hasierako asmoa kubatar etorkinen arteko amodio istorio bat kontatzea bazen ere, zuzendariak aitortu zuen azkenean jende horren bizimoduak hartu duela lehentasuna. X

■ Maria Joao Pires piano jole portugaldarrak Iruñean joko du gaur

ELKARTE FILARMONIKOAK antolatuta, Maria Joao Pires piano jole portugaldarrak kontzertua eskainiko du gaur, Iruñeko Gaiarre antzokian. Beethoven, Bartok eta Schubert konpositoreen obrak joko ditu. Piano jole goiztiarra da Maria Joao Pires: hiru urte zituenean hasi zen pianoa jotzen, eta bost zituenean lehen kontzertua eskaini zuen. Gaurko kontzertua ez da piano jole portugaldarraren lehenengo Iruñean, 1994. urtean Nafarroan izan baitzen. X

■ Flamenko gauak hasiko dira gaur Barakaldo antzokian Chano Lobatoren kontzertuarekin

GAUR GAUEAN hasiko dira Barakaldo antzokiko II. Flamenko Topaketak. Kontzertu sortari hasiera emateko Chano Lobato *cantaor* edo abeslaria aukeratu dute antolatzaileek, askoren iritziz XX. mendeko dantzarako flamenkoan izan den kantari onena. Aldamenean Chano Ramirez gitarra jolea izango du. Bost kontzertu antolatu ditu Barakaldo antzokiak Flamenko Topaketen barruan. Guztiak ostiralean eta gaueko 23:00etan hasiko dira. X

■ Garcia Lorcaren obra poetikoaren antologia aurkeztu dute haren jaiotzaren mendeurrenean

FEDERICO GARCIA LORCAREN *Antologia poética*-ren edizio berria aurkeztu zuen asteazken gauean Granadako Diputazioak, poetaren jaiotzaren mendeurreneko ekitaldien barruan. Garcia Lorcaren antologia hori 1986. urtean argitaratu zuten aurreneko aldiz, haren heriotzaren 50. urteurrena zela-eta, eta gainbegiratu eta berritua aurkeztu dute orain. Andrew Anderson irakasle estatu batuarrek apailatu du obra. Gaur bertan hasiko dira, bestalde, Garcia Lorcaren jaiotzaren mendeurrenaren omenezko ekitaldiak. X



Fernando Bravo orkestra zuzendaria, Jose Luis G. Ordorika baritonoa eta Elisabet Sarriugarte soprano komikoa atzoko aurkezpenean.

XOUSE SIMAL

'La Tabernera del Puerto' zarzuela asteburuon Bilbon

Sorozabalen lana Ayala antzokian eskainiko dute bihar eta etzi

Andres Isasi ganbara orkestrak, Agurtzane Mentxaka sopranoak, Jon Gutierrez eta Koldo Villar tenoreak, eta Jose Luis G. Ordorika baritonoak Ermuko zenbait abesbatzeta-kantari bikain baina ez profesionalak izango dituzte aldame-nean bihar eta etzi Bilboko Ayala antzokian eszenaratuko den *La Tabernera del Puerto* Sorozabalen zarzuelan.

Montse Arregi / Bilbo

IAZ Pablo Sorozabalen mendeurrena zela eta haren *La Tabernera del Puerto* zarzuela prestatu eta eszenaratu zuten Ermuan herriko Abeslariak eta Pispillu abesbatza. Andres Isasi ganbara orkestra bilbotarrak eta Agurtzane Mentxaka sopranoak, Jon Gutierrez tenoreak, Koldo Villar tenoreak eta Jose Luis G. Ordorika baritonoak. Lan mardularen emaitza arrakastatsua izan zen oso, eta ikuskizuna beste antzoki batzuetara eramatea otu zaie. Biher arratseko 20:00etan eta etzi 17:30etan hasita eskainiko dute zarzuela lana Bilboko Ayala antzokian. Aurrerantzean beste hainbat tokitara eramatea espero dute kideek eta abeslariak.

Fernando Bravo da Andres Isasi ganbara orkestrako zuzendaria. Haren esanetan, Agurtzane Mentxaka, Jon Gutierrez eta Koldo Villar «kantari gazte bikainak» dira, eta dagoeneko abian da beraien ibilbide artistikoa. «Orkestra bereziki musikari gazteei ildo profesionala aurrera egiteko aukera gisa sortu zen, eta zentzu horretan bat dator abeslariak ere bultzatuko dituen ekimenarekin», adierazi zuen atzo Bilbon egindako aurkezpenean.

Koldo Villar tenorea Opera Lagunen Bilboko Elkarteko (OLBE) abesbatzako kidea da eta opera denboraldian paper txikietan hartu izan du parte. Jon Gutierrezek *Mari Eli* lanarekin debutatu du, eta Agurtzane Mentxaka sarritan aritu da Andres Isasi

ganbara orkestrarekin han eta hemen erreitaldi ezberdinak eskaintzen. Ordorikari dagokionez, baritonoa beteranoa da zarzuelan, eta hamaika aldiz taularatu izan du *La Tabernera del Puerto*.

Elisabet Sarriugarte ermurrak ere badu bere pertsonaia zarzuelaren barruan. Musika irakaslea da, eta atzo azpimarratu zuenez, «gainontzeko abeslariak zaletuak gara, abesbatzetako kantariak. Guretzat sekulako lana izan da guztia prestatzea, baina orain arte lortutako arrakastarekin oso pozik gaude. Aurrera segitzea espero dugu».

Erromantza ospetsuak • *La Tabernera del Puerto* zarzuelaren zati ospetsuenak gogorarazi zituzten antolatzaileek. *Bajoaren Erromantza*, esaterako, Armando Benitok interpretatuko du. «Zaletua izanik sekulako abeslari bikaina da», nabarmendu zuen orkestra zuzendariak. Publikoak txalotuko duen beste zati bat *Tenorearen Erromantza* da, Placido Domingo tenore famatuak edonon kantatu ohi duena. X

IRAGARKI MERKEAK (943) 3 0 0 2 2 2

66 x 69 4 MODULO (Edizio orokorra) Eguna: 11.100 Astea (6 egun): 8.720 2 aste (12 egun): 7.880 Hilabetea (24 egun): 5.540	31 x 33 mm 31 x 33 MODULO (Edizio orokorra) Eguna: 2.775 Astea (6 egun): 2.180 2 aste (12 egun): 1.970 Hilabetea (24 egun): 1.385	31 x 33 mm 31 x 33 MODULO (Araba-Nafarroa) Eguna: 2.075 Astea (6 egun): 1.700 2 aste (12 egun): 1.490 Hilabetea (24 egun): 1.075	66 x 33 mm 2 MODULO (Edizio orokorra) Egun: 5.550 Astea (6 egun): 4.360 2 aste (12 egun): 3.940 Hilabetea (24 egun): 2.770	31 x 33 mm MODULO (Iparralde) Eguna: 85 l. Astea (6 egun): 80 l. 2 aste (12 egun): 67 l. Hilabetea (24 egun): 53 l.	DONOSTIAKO Alde-Zaharrean pertsona bat behar da 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 4 3 1 0 8 3	Neska gazte euskalduna behar dugu dependienta lana egiteko. GILI GILI Loteria kalea, 4. BILBO 94 / 479 04 06
--	---	--	---	--	---	---